



## Alegiako Gaztetxea sasoi betean

**ADIN-NAGUSIAN** ▶ Aurreko urteetako zailtasunak igarota, 19. urtemugarako bidean dago


**FESTAK** ▶ Ohiko egitarauaz gain, berrikuntzak ere prestatzen ari dira aurtengo herriko jaietarako ▶ 6-7



RENFEren lehengo biltegian aurkitzen da Alegiako Gaztetxea. N. URBIZU



IMANOL GARCIA



## Hasi da Joxean Tolosa Pilota Txapelketa

**AMEZKETA** ▶ Kadete, gazte eta nagusi mailako pilotari onentsuenak ari dira, nor baino nor, 17. edizioa betetzen duen txapelketan ▶ 4

hitza

Harpidedunen  
txokoa

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK  
2 eresketa txartel zotz egingo ditu  
bere harpidedunen artean,  
Kilometroak 2006 dendetan erabiltzeko.**

**ZORTE ON!!**



**Denda finkoak:**  
OJARTZUNGO DENDA  
San Esteban enparantza, 11-B / astean: 16:30-19:30 / larunbatetan: 10:00-13:00  
ERRENTERIA-ORERETAKO DENDA  
Herriko enparantza, 1 / astean: 17:00-20:00 / larunbatetan: 10:00-13:00 • 17:00-20:00  
**Denda ibiltariak:** [www.kilometroak.com](http://www.kilometroak.com) webgunean

## LEHEN ETA ORAIN ▶



## Nola aldatu da Ibarrako plaza azken urteotan?

**Erredakzioa** ▶ Urteek aurrera egin badute ere, herriaren sorrerako ezaugarri nagusiak mantendu egin dira. Horren adibide da San Bartolome parroki eliza; XVIII. mende hasieran eraiki zen, eta itxuraz barrokoa da bere dorreak dituen ezaugarriengatik, batez ere. Elizaren inguruko Txontxo etxeak, Zubiaurrek eta Ugarte etxeak osatu zuten garai haietan, pilotalekuarekin batera, Ibarrako plaza.

Aldaketen artean udaletxearena dago, izan ere, errepidearen alboan, plazaren eta Uzturreko maldaren artean dagoen eraikinean leutzen zen lehen. Inguruko herriekiko komunikabideetan garrantzi handia izan duen eta Zelai errekararen gainetik pasabide bezala lan eskerga eginkoia den harlangaitzezko zubiak, ordea, hor dirau herriaren bilakaeraren eta gertakizunen lekuko gisa. HITZA

## ESANAK ▶



**JABIER ESKUBI**  
ARALARREKO ZINEGOTZI  
LEITZARRA IRUÑEKO UDALEAN

«Iruñeko sanferminetako suziria botatzea gutxi batzuen pribilegio gisa ikusi izan dut»

«Barcina alkate denetik lehen aldia da abertzale batek txupinazoa botatzen duena. Hori galarazten saiatu da alde guztietatik, baina azkenean amore eman behar izan du»

«Iruindarren aurrean lehenengo hitzak euskaraz egingo ditut, zalantzarik gabe, nire hizkuntza baita»

*'Berria' (2006-07-06)*

## DATUA ▶

# 57

**eragilek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria Leitzaldean.** Iaz baino 9 eragile gehiagok jaso dute aurten Bai Euskarari Ziurtagiria Leitzaldean. 57 Ziurtagiri banatu berri ditu Kontseiluak eskualde horretan: horietatik, 9 dira Aresokoak eta 48 Leitzakoak. Euskararen aldeko konpromisoa berretsi dute, hala. «Pozgarriena iaz konpromisoak hartu zenituzten entitateek urtean zehar bete eta neurri berriak hartu dituzuela ikuste da, eta eragile berriak gehitu direla euskararen normalizazioaren aldeko prozesura». Hala zoriondu zituen guztiak Kontseiluko idazkari Xabier Mendigurenek.

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Hitzen errebantxa



**B**ada azken hogeiren bat urteotan hizkuntzaren filosofian garatu den joera bat, aldeko nahiz kontrako argudioak alde batera utzita, guxtienez kurioa-edo iruditzen zaidana. Joera horrek defendatzen duenaren

arabera, ez dugu gure hitzen esanahia guztiz ulertzen. Izan ere, filosofo horien iritziz, izen propioen esanahia munduko objektu arrunt bat da, eta ez gure buruan-edo legokeen zerbait. Hau da, horien arabera *Donostia* hitzaren esanahia Donostia hiria bera da, *Ekain* izenaren esanahia, ni neu, eta *España* izenarena... bueno, hori beste kontu bat da. Izen propio baten esanahia hark izendatzen duenak osatzen du, eta ez guk izenarekin lotzen dugun ideiak edo antzeko zerbaitek. Horregatik, diote,

erabiltzen ditugun esaldien esanahiaz daukagun ezagutza objektuez dugun ezagutzak baldintzatuta dago. Objektuei buruzko gure ezagutza mugatua denez eta ez erabatekoa, erabiltzen ditugun hitzen esanahiaz daukagun ezagutza ere mugatua izango da.

Ez dakit aurreko paragrafoetik ezertxo ere ulertzen den, baina hau da azaldu nahi dudana: filosofo horien arabera, hitzak erabiltzen ditugu hainbat gauza esateko, gure usteak besteei helarazteko, kexatzeko, gezurrak esateko edo

beste mila gauza desberdin egiteko; eta horiek ondo egiten ditugu, besterik gabe. Baina zera da kontua, hori guztia gure hitzek egiaz zer esaten duten guztiz jakin gabe egiten dugula, kasu askotan, behintzat. Ez dakit ikuspegi hori oso zuzena den, baina imajina polita iruditzen zait.

Badirudi, Coixeten pelikulak zioen moduan, hitzek badutela beren bizi sekretua, eta gu ezin garelako hartara iritsi. Badirudi, gugandik independenteki, hitzek bide propioa jorratzen dutela. Eta hori, laburki esanda, gure asmoei jaramonik egin gabe gure aurka errebantxa hartzen duen hitzaren imajina gustuko dut.

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Puntukako gidabaimena: zerbait konponduko dela uste al duzu?

Zerbait egin behar dela argi dago, errepidean jende asko eta asko hiltzen delako: abiadura handiegia, zuhurtzaririk eza, alkohola... Neurriak hartzea beharrezkoa iruditzen zait, baina ez dakit hau bidea den. Negozio kutsua ere hartzen diot, bada. Denak beldurrez zenbat puntu galduko ote ditugun, eta berriro dirua utzi autoeskolan berri ere gidatu ahal izateko. Horrela espabilituko dugula? Igual. Poltsikoa, behintzat, laster hustuko zaigu...

NEGOZIOA? ▶

Hasieran seguruenik denok kontu handiagorekin ibiliko gara, nobedadea delako. Dena dela, dirua ateratzeko beste modu bat da, eta ez dut uste honek ezer konponduko duenik. 120ra gidatuz ere, istripuak egongo dira. Gehienez 120ko abiadura har ditzaketen autoak egin beharko lituzke, hasteko. Ez dut uste soluziorik dagoenik. Gainera, beti denboraz juxtu ibiltzen gara, eta horrek kotxean abiadura dauka eragina...

DOLOX ▶ PUNTUKAKO KARNETA

Autoa, furgoneta edo kamioia lan tresna dutenei egiten die kalte honek, nire ustez. Eta ez dut uste jendea horregatik polikiago joango denik. Doloxek arrazoi du. Lehenengo neurria abiadura topeagatik pasatzen ez diren kotxeak egitea izango litzateke. Zein joango da autopistatik 120ra bere kotxea 160 edo gehiago nahi gabe harra-patzen duenean? Hortik hasi beharko lukete begiratzen.

▶

Nire ustez zorrotzegia da legea, lege hauste batzuegatik gal daitekeen puntu kopurua handiegia da. Gainera, gauza gehienekin gertatzen den bezala, orain bai jendeak harreta gehiago jarriko duela, baina gero gauzak lehengora itzuliko dira.

▶

Dolox-i gauza batean eman mahi diot arrazoiak: beti denboraz justu ibiltzen garelako. Hori aldatu egin beharko genuke. Alkoholaz gain, presaka bizi-tzeak ekartzen ditu, nire ustez, istripu gehienak. Ni neu askotan ikusi dut neure burua larritasun batean presaka ibiltzeagatik. Gidabaimenari buruz ondo iruditzen zait zerbait egitea. Ez da posible hildako kopuru bat onartu behar izatea errepidera asteburutan edo oporretan ateratzen garen bakoitzean. Ruleta errusiarra ematen du horrek. Argi dago

kontzientziaziro gehiago egin behar dela gizartearen eta ohitu behar dugula gauza asko errespetatzea: abiadura, oinezkoen pasabideak, aurrerazteak, semaforoak... Eta zerbait egin beharra dago egun dugun abiadura handiko bizi-tza mantxotzeko.

GAZTE BAT ▶

Aurrekoak esan duen bezala, iruditzen zait hasieran jendeak kaso gehiago egingo diola lege berriari, beldurra dugulako zenbat puntu kenduko dizkiguten, zer zigor jarriko diguten... Baina ohitzen garenean, lehen-go lepotik burua. Hori bai, datu batzuk irakurri ditut aurreko asteburuan, eta zenbat zigor jarri dituzten harritu egin naiz. Kopuru handia iruditu zait. Ea denok harretia handiagoa jartzten dugun... Ez da eta broma errepidearena...

IÑAKI ▶

Errepidean bizitza asko joaten direla argi dago, eta neurriak hartu behar direla ere bai. Baina betikoa da: zergatik eskatzen dute abiadura gutxitzeko gero eta auto azkarragoak egiten badituzte? Atzean diru kontuak, beti bezala. Puntuak balio dezakete, baina bakarrik bere horretan ez du ezer lortuko. Lehen asteburuan argi geratu da hildakoen kopurua ez dela gutxitu. Neurriak bai, baina beste zerbait ere beharko litzateke. Honekin batera, gainera, hez-

kuntza ezinbestekoa dela iruditzen zait.

KATU ▶

Legeari zorrotzaren alde nago; izan ere, badirudi modu horretan soilik ikasi ahal izango dutela gidari batzuk, edota ero batzuk, esan beharko genuke. Askok eta asko dira herri edo hiri barruan eroarena egiten dabilzanak, eta hori geratu beharra dago errepideak ez baitira abiadura lehiak egiteko lekuak. Noski, legeak zorrotztea ez da nahikoa, eta pentsatzen dut baliabide nahikoa jarriko dituztela behar bezala betetzen direla ziurtatzeko.

XABI ▶

Ez nago ados Gazte bat-ek diotenarekin. Ez dut uste hain azkar bizi garenik, bakar batzuen kontua da, eta horienagatik guztiok ordaindu behar izatea ez zait justua iruditzen. Txoriburuko horiek zigortu behar dira, eta ez normalean arauak errespetatzen ditugunak.

BESTE GAZTE BAT ▶

Udala eta Gerontologikoaren aldeko plataforma, baina gauza berririk ez. Gauzak motel joango direla esan omen zuen Udalak. Baina ezin da gai honenkin motel ibili! Gaia larria da! Premia handia du! Tolosaldean zentro berri bat behar dugu. Egingo da. Ados. Baina noiz? Ordura arte ezin dugu ezer egin gabe gelditu! Zer egin plaza behar duten pertsona denekin? Bitartean zer edo zer aztertuko beharko da, bada! Proiektua luzarorako izan daitekeela onar dezaket, baina ezin dut onartu hori aitzaki bezala erabili eta orain, premiak jarraitzen duenean, ezer ez egitea hori iritsiko delako. Gure adinekoek orain behar dute laguntza!

IRTENBIDEA JA! ▶ ZER PAUSO EMAN DIRA?

Zenbat plaza izango ditu Tolosaldeko Gerontologiko berriak? Noiz hasiko dira obrak? Noizko izango dugu zentroa? Zenbat diru kostatuko zaigu? Zer baldintza bete beharko dira hor sartu ahal izateko? Proiektu berria aurkeztu zigun Udalak, eta ematen du jada pozik gaudela. Baina informazio pila bat zor digu. Zergatik? Behar bada erantzunak ez dakizkie-lako? Ni ez naiz, bada, konformatzen proiektu bat aurkeztu didatelako. Ez ditut hitzak behar, ekintzak baiziki. Ni, behintzat, ez nauzue isilduko.

HITZTATIK EKINTZETARA ▶

Tolosako Gerontologikoari buruz

Baten batek al daki zertan den asuntza? Badakigu (nik TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN irakurri nuen) bildu egin direla

iragarki laburrak ▶

**LAN HEZKUNTZA Osakidetza.** Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak.

Berehalako deialdia: 943 313782.

**Diputazioak.** Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaindariak behar ditu. 943 313782. **Laborategi teknikariak.** Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

**Liburutegi** laguntzaileak behar dira zenbat udalbetetan. 943 313782. **Administrari laguntzaileak.** Anoeta, Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udalbezetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

**Peoiak,** garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian. Informa zaitez: 943 313782. **Haur zaintzaileak,** hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

**Peoiak.** Udalbezetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre. 943 313782. **Gidariak.** Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

## AMEZKETA ▶ PILOTA

IMANOL GARCIA

Asteburu honetan eman diote hasiera Joxean Tolosa Pilota Txapelketari. Kadete, gazte zein nagusi mailan Euskal Herriko pilotari onentsuenak ari dira lehian 1973. urtetik antolatzen den txapelketa honetan, aurten 17. edizioa betetzen duena Amezketa pilotari txapelkunaren izenarekin.

24 pilotarik hartuko dute parte maila bakoitzean eta horietatik zortzi zerrendaburu aukeratu dira. Beste hamaseik euren artean jokatzeko dute lehen kanporaketa eta final-laurdenetan zerrendaburuak izango dituzte zain. Hain zuzen, lehen kanporaketaren partidak jokatu zituzten, guztira bederatzita, herenegun eta atzo Amezketa frontoian. Atzo gaueko partidaren emaitzak egunkari honen edizioa itxi baino lehen ezin izan ziren jakin. Beraz, sei hauek dira oraingoz final-laurdenetarako sailkatu direnak: kadeteetan, Otamendi (Azpeitia) eta Mendinueta (Gasteiz); gazteetan, Yeregi (Azpeitia) eta Saez (Olazti); eta nagusietan, Zelaia (Lizartza) eta Ugarte-mendia (Berrobi). Azken honen aurkaria ez zen azaldu gaxo zegoelako.

Esan bezala, pilotari ezagunek hartzen dute parte lehiaketan, eta nabarmentzekoa da kadeteetan dagoen maila. Peñas, Euskal Herriko eta Elgetako 4 t'erdiko txapelketa, da faboritua. Aipatzekoa da infantil mailako Jaunarena leitzarra gonbidatu dutela kadeekin lehiatzera. Gazteetan lehenengo zerrendaburu aita orexarra duen Iturrioz altsasuarra da eta nagusien mailan Zazpi-Iturri eskolako Baez I.a donostiarra faboritoen artean dago.

## EMAITZAK ▶

<b>Kadeteak.</b>	
Otamendi-Olaebea	18-9
Otaegi-Mendinueta	11-18
<b>Gazteak.</b>	
Yeregi-Beloki	18-11
Jauregi-Saez	3-18
<b>Nagusiak.</b>	
Zelaia-Etxeberria	18-15
Ugarte-mendia-Goenaga (ez zen agertu)	18-0

# Eman dituzte lehen pilotakadak Joxean Tolosa Txapelketan

Lehen kanporaketako partidak jokatu dituzte Amezketa frontoian hiru mailetan: kadeteak, gazteak eta nagusiak



Kadete mailako Mendinueta (ezkerrean) eta Otaegi, atzo arratsaldeko partidaren une batean. I. GARCIA



Gazte mailako Saez (ezkerrean) eta Jauregik jokatu zuten atzo arratsaldeko bigarren partida. I. GARCIA

## TOLOSA ▶

## Euriaren eragin positiboa azokan

Perretxiko zerrenda oso bete da izan zen eta izugarritzko kalitatea eskaini zuten

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka oso animosoa suertatu zen Tolosan. Pasa den asteko euriaren eragina oso positiboa izan da azokaren produktu batzuen gain. Perretxiko zerrenda, adibidez, oso bete da izan zen atzo. Bertako onddo asko izan ziren, 120 kilo gutxienez, kanpoko onddoak eta ziza horiak, eta guztiak, izugarritzko kalitatea eskaintzen zuten. Prezioak joan den astekoetan mantendu ziren.

Barazki zerrenda ere oso oparoa izan zen; berrikuntzen artean, kanpo libreko gernikako piparra, eta fruta zerrenda. San Joan sagarra, Perilla udarea eta San Pedro sagarra, hirurak euro batean saldu ziren, eta dirudienez, datozen asteetan aukeran izango ditugu azokan.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Begonia	1,00	1,20
Surfinia	2,20	2,40
Erromero	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Hortentsia	10,00	12,00

## Bertako produktuak

Tolosako Babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Lekak	2,50	3,50
Erremolatxa	1,50	2,00
Azenarioa	1,20	3,00
Arraultzak	1,30	2,10
Ardi-gazta	14,00	18,00

## Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2,00	2,50
Lebuga	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Arraultzak	3,50	-
Intxaurra	4,00	6,00
Baraturia	1,60	6,00

## hilberriak ▶

### Fernando Muniozguren Urkiola

(Txaparro Kultur Elkarteko lehendakari ohia)



**Txaparro**

Txaparroko lagunak

ZARAUTZ, 2006eko uztailaren 9a

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuak deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmetuduna. Interesatuak deitu behar dute 635 74 52 91 telefono zenbakira.

## SALGAI

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Berrobin. 29 miloi eta erdi. Negoziazgarria. Deitu 618 83 32 56 zenbakira.

**Etxea.** Etxea salgai Villabonan. Partikularki. 664 58 62 11. 17:00etatik 21:00etara.

**Etxebizitza.** Leitzan 100 m2-ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. 699 46 13 65.

**Iriarte Jatetxea**  
Udarako  
terraza irekia dugu  
**943 68 30 78**  
Berrobi

GIZARTEA ▶

# Iurramendin, sanferminak buruan

Herenegun jai berezia egin zuten auzo berriko bizilagunek, zapi gorria lepoan, haurrek egun desberdina igaro zezaten

**NEREA URBIZU**

Iurramendi auzo berria jai berezia egin zuten herenegun. Jende gaztea da, gehien bat, han bizi dena, eta haiek antolatu zuten egun hori. Hain zuzen ere, San Fermin jaiak aitzaki hartuz, festa hauetan aski eza-gunak diren ekitaldiak egin zituzten, hala nola, entzierro antzeko bat, eta, nola ez, aste honen baitan Iruñeako bi kolore esanguratsuenak jantzieta erabiltzea, txuria eta gorria.

Ume mordoa bildu zen parke inguruan, guraso gazteek gogotsu prestatutako festa inguruan. Txupinazoak eman zuten festarako seinalea, entzierroa egin zuten, eta ondoren ume jolasak, eta txikientzako afari-merienda. Ondorengo afarian 100 bat lagun bildu ziren. Haien baliabideekin egindako festa arrakastatsua izan zen, beraz. Afalostean ere, musika jarri zuten dantzatzeko eta kaleko giro onaz gozatzeko.



Umeek jolasak izan zituzten egunean zehar, parke inguruan. HITZA



Gurasok eta gazteek afari-merienda egin zuten txikientzat. HITZA



Iurramendiko txikiek zezenarekin entzierroa egin zuten. HITZA

GIZARTEA ▶

## Pilar Malumbresentzat Alde Zaharra Dendak elkartearean sari nagusia

Drogeria Orusen jaso zuen txartel saritua; 750 euroko txekea beretzat

**ERREDAKZIOA**

Alde Zaharra Dendak elkarteak banatu berri du promozio sari nagusia. Pilar Malumbres izan da saritua eta berarentzako izango da 750 euroko txekea. Drogeria Orusen dendan erosketak egin ondoren jasotako txartela izan zen saritua eta bertan jaso zuen Malumbres bere saria, Ana eta Elena Orusen eskutik.

Alde Zaharra Dendak elkarteak kide direnak ekainean zehar banatu dituzte zozketaren txartelak. Denda horietan erosketak egin zituztenak jaso zituzten txartel horiek. Guztirxa 11 sari izan dira banatu dituztenak eta horietatik nagusia Pilar Malumbresek eraman duen 750 euroko txekea izan da. Saritua txeki hori erabili ahal du berak aukeratzeko duen elkarteak kide diren dendetan erosketak eginaz.



Pilar Malumbres, txekearekin, Ana eta Elena Orusen artean. HITZA

**Pasaten den egun bakoitzeko, errepikatuko ez den eskaintza bat**

<b>PortAventura</b>	<b>188€</b>
10 egun jarraituz 10 gau biziango. El Niseko biziak... Guraso saria, 31.260 gta	
<b>Fiteroko Bainu Etxea</b>	<b>237€</b>
10 egun jarraituz 10 gau biziango... Guraso saria, 39.433 gta	
<b>Gran Canaria</b>	<b>700€</b>
10 egun jarraituz 10 gau biziango... Guraso saria, 116.670 gta	
<b>Caledonia Aparthotelak</b>	
<b>Costa del Sol (Málaga)</b>	<b>65€</b>
10 egun jarraituz 10 gau biziango... Guraso saria, 18.815 gta	
<b>Costa del Mar (Málaga)</b>	<b>94€</b>
10 egun jarraituz 10 gau biziango... Guraso saria, 15.640 gta	
<b>Asturias</b>	<b>39€</b>
10 egun jarraituz 10 gau biziango... Guraso saria, 6.088 gta	

Pasaitekin berretsi behar dira. Guraso saria... Guraso saria... Guraso saria...

[www.viajeroski.es](http://www.viajeroski.es)  
**EROSKI** / **bidalak**  
 merkitu duzu

## ALEGIA ▶ GAZTETXEA



Itxura berria. Duela gutxi margotu dute kanpotik Gaztetxea, eta argazkian ikusten den itxura du orain. J. G.

# Sasoi betean

Inoiz baino egoera hobean dago egun Alegiako Gaztetxea; 19. urtemugarako bidean, festen antolaketan murgildurik dabilta

JULEN GOIKOETXEA

Askok eta askok hartuko luketen adinean aurkitzen da gaur egun Alegiako Gaztetxea. Izan ere, ia zoko abenduan bete zituen 18 urte, eta ekitaldi ugariarekin ospatu zuten Gaztetxearen nolabaiteko adin-nagusitasuna. Atzera begira jartzea erraza da orain, baina jende askoren ilusio eta lanari esker dago hor oraindik. Gaztetxeako kide *beteranoen*ek nostalgia puntu batekin gogoratzen dute 1987. urteko abenduko egun hura. Garai hartan, denbora zeramaten jada gazteek beraien ekintzak aurrera eraman ahal izateko lokal bat lortu nahian, eta hainbat saikeraren ondoren, RENFEren biltegi zaharreko atea bota eta gaur hain itxura polita duen eraikinean lanean hasi ziren.

Behin jada oinarritzko azpiegitura martxan jarri ostean, gazteek euren ekimenak aurrera eramateko erraztasun gehixeago lortu zituzten, eta askotariko ekintzak antolatzen hasi ziren: kontzertuak, ikastaroak, mendi irteerak... Baina gutzia ez da aldapa behera izan urte hauetan guztietan, eta arazo dezente izan dituzte Gaztetxeak eta bertako kideek.

Izan ere, 90. hamarkadako azken urteetan, Udalak egin nahi zuen aparkaleku bat zela eta, Gaztetxea eraitsia izateko arriskuan egon zen denbora luzean. Egoera hori ez zen eroso izan ez alde bateko zein beste koentzat, eta Gaztetxean itxialdia burutu zuten eraisketaren aurka. Afera horri, beste bat gehitu zitzaion; 1998. urtean RENFEk jarritako salaketa bat zela eta, ertzainak sartu ziren Gaztetxera, eta une hartan bertan zeuden bost gazteen izenak hartu eta auzipetuta zeudela jakinarazi zieten. Hasiere batean gauza bere horretan geratuko zela zirudien, baina 2004. urtean epaiketara deituak izan ziren aipatutako bost gazte horiek. Horren aurrean, epaiketareen aurkako sinadura bilketa egin zen, eta nahiz eta epaiketa gerarazteko balio ez izan, gazteak libre ateratu ziren epaiketatik inolako kargurik gabe.

## Inoiz baino osasuntsuago

Aurreko urteetako zailtasunak eta arazoak gainditu direla esatea ez da gezurretan aritzea. Izan ere, belaunaldi gazteek Alegiako oso gustuko dutela dirudi, eta inork bertako atea irekitzen badu, adin ezberdinetako gazte ugari aurkituko ditu bertan gauza ezberdinak egiten: batzuk agian garbiketa lanetan ariko dira eta beste ba-

XABIER ZABALA ▶ GAZTETXEKO KIDEA

## «Ohiko egitarauaz aparte, berrikuntzak ere izango dira aurten»

Hilaren 13tik 17ra ospatuko dira XVIII. Festa Alternatiboak Alegian, eta data hori ia gainean denez, Gaztetxeako kide Xabier Zabalararekin jarri da harremanetan HITZA prestaketa horien nondik norakoei buruz eta beste hainbat gai buruz hitz egiteko.

**Erraz esaten da, baina aurten XVIII. Festa Alternatiboak ospatuko dituzue, eta abenduan 19 urte beteko ditu Gaztetxeak.**

Bai, hala da. Duela ia 19 urte Gaztetxera sartu ziren lehenengo haiek ez zuten inondik inora pentsatuko hainbeste

urte pasatu eta gero herriko gazteok ilusio berarekin edo gehiagorekin lanean jarraituko genuenik. Baina gaur egun Gaztetxeak bizi duen egoera oso ona da, eta hori aprobetxatu beharra dago eta ahalik eta denbora gehienez luzatu nahi dugu egoera hau.

**Zer aurkituko du bost egun horietan Alegiako Bulebarrean gerturatzen denak?**

Gehienbat urteroko ekitaldi garrantzitsuenak mantendu ditugu, baina beti egiten dugun moduan berrikuntzaren bat ere sartu nahi izan dugu. Ohiko sagardo dastaketa, he-

rrri bazkaria, bertsolariak eta beste hainbat gauza ez dira faltako, baina oraingoz aurreratu ezin diren gauzak ere badira. Osteguna gainean dugu, eta jada herri askotan ikusgai dauden egitarauak ez baditu jendeak ikusi, Alegiara gerturatzea besterik ez du festan murgildu nahi duenak.

**Festen XVIII. urtea, Gaztetxea 19 betetzear... Jada egonkortuta eta sendotuta dagoela esan dakiteke, ezta? Zalantzarik gabe. Aipatzekoa da, gainera, urte horietan guztietan hasierako ilusioak berdin iraun duela, eta hainbeste**

denbora irautearen arrazoi nagusia hori dela esango nuke. Bestetik, herriko gazteen artean dagoen harreman ona ere aipatu nahi nuke. Nire ustez, herri gutxitan gertatzen den gauza da; adin ezberdinetako jendea elkarrekin oso modu naturalean erlazionatzen da, eta hori dela eta ekintza ezberdinen antolaketarako garaian, askoz errazagoa da lan taldeak osatzea. Hemen ez da inor kezkatzen, esaterako, festetako txosnan beste koadrila bateko jendearekin egotea tokatzen bazaio. Beraz, aipatu ditudan puntu horietan dago Alegiako festaren sekretua. Ea urte askotan horrela izaten den eta ondorengo belaunaldiek ere bide berari jarraitzen dioten, ez baita inondik inora seinale txarra izango. ◀

**KRONOLOGIA**

Modu laburrean azalduta, hauek dira Gaztetxearen historian zer esana eman duten datak.

**1987.** Abenduan sortu zen Gaztetxea, RENFEren biltegi hutsean sartuz.

**90. hamarkadako azken urteetan.** Gaztetxea eraitsia izateko arriskuan egon zen, Udalak Gaztetxea dagoen tokian aparkaleku handi bat egin nahi zuelako.

**1998.** Ertzainak Gaztetxera sartu eta une hartan bertan aurkitzen ziren 5 lagunen izenak hartu zituzten, auziperatuta zeudela esanez.

**2004.** 1998. urteko auzi horren epaiketara deitu zituzten gazteak, eta kargurik gabe aske atera ziren.

tzuk, bitartean, Gaztetxearen kanpoaldean dagoen lorategi txikiko zuhaitzaren itzalpean egongo dira lasai asko. Beraz, hasierako oinarriak jarri zituztenek ikusi dute nola garai hartan ia jairo gabe zeuden gazteek euren lekukoa hartu dutela, eta ez dutela Gaztetxea usteltzen uzteko asmorik.

Aurrera begira, herriko jaiak ere gainean dira, eta aurten ere Festa Alternatiboetan egitarau zabala izango da bost egunetan zehar Alegiara gerturatzen den ororentzat. Hilaren 13an, osteguna, hasiko dira, ohiko sagardo dastaketarekin; eta hilaren 17ra bitartean izango da zer ikusi eta gozatua Bulebarrean. Bost egunetako jai horiek antolatzeke, ordea, aspaldi hasi ziren bilerak egiten, eta egitaraua osatuta dutela adierazi dute.

Beraz, Alegiako Gaztetxean aurrera jarraitzeko ilusioa eta gogoia badagoela, behintzat, argi geratu da. Hala, jaien ondoren ere ez dute denborarik galduko, eta abenduan izango den XIX. urtemugaren prestaketa lanetan hasiko dira gazteak buru-belarri, aurrekoak bezala oparoa izatea nahiko dutelako.



**Aisia.** Bi gazte film bat ikusten Gaztetxean. J. G.



**Kanpoaldea.** Udari begira urtero txukuntzen dute lorategia. J. G.



**Kontzentratuta.** Dardotan jokatzeko aukera ere bada. Argazkiko bi gazteek, behintzat, maila altua dutela erakutsi zuten. J. GOIKOETXEA

► hilberriak  
► urteurrenak  
► eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**hilberria ►**

**Fernando Muniozguren Urkiola**  
(Aralarkidea)

Ezkerreko euskalzaileen bidelagunari



ZARAUZ, 2006ko uztailaren 9a

**hilberria ►**

**Fernando Muniozguren Urkiola**



Lur nintzen eta lurtuz noa  
zuga bat egin arte  
zurekin behin betikoz  
ezkontzen naizen arte

Ostiraletako eta mendiko lagunak

ZARAUZ, 2006eko uztailaren 9a



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Asteasu.** Santamaña VI. Kros Igoera izango da 10:30ean. Plazatik aterako dira, osotara zazpi kilometro egiteko.

**Ibarra.** Bizi-Nahi jubilatutako elkartek irteera antolatuta du Belagoara, hilaren 12an eta 13an, Hiru Behien Festa ikustera. Izen-ematea, elkartean.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Jubilatuen tabernan Miren Ortegaren margolanen erakusketa izango da uztaila osoan zehar.

**Zizurkil.** Eskulturen erakusketa, Olentzo jatetxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Tolosa.** Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

**Bihar**

**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1. 943 67 38 49.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**

**Gaur**  
 10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina (errepikapena).

**Bihar**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAREN erreposoa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xorroxin irribariaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Pilota, kultura lantzeko

**LEITZA ▶** lurretako pilota eskolakoek herria bisitatu eta frontonean partidak jokatu zituzten herriko pilotariekin batera, giro jatorrean



Leitzarrek lurretakoekin nahasturik jokatu zituzten partidak. Ana Zelaietak aurkeztu zituen leitzarrek. n. u.



Ikusle asko izan ziren, gurasoak gehienak. Adiskidetasuna ez zen jokalarien artekoa bakarrik izan. n. URBIZU



**NEREA URBIZU**

**P**ilota izan zen atzo, lurretako eta Leitzako pilota eskolako ume eta gazteak lotzeko eta elkar ezagutzeko aitzakia aproposa. «Helburua bidai pilotazale eta kulturale egitea izan da», zioten bi antolatzaileek, Ana Zelaietak eta Migel Azkunek. «Hona etorri gara, bertan pilotazaletasun handia dagoelako eta profesional ugari daudelako», zioen Azkunek.

Denen artean binakako 10 partida jokatu zituzten: prebenjaminetan, benjaminetan, alebinetan eta kadeteetan. 40 pilotari elkartu ziren orotara, eta bultzatu nahi zuten adiskidetasunaren seinale bikoteak nahasturik eratu zituzten. Epailan lanetan Andres Aranburu aritu zen, Leitzako pilota eskolako lehendakaria. Hamaiketakoa ere egin zuten gaztetxoek, frontonean bertan, Barriola eta Bengoetxea ere bertan zirelarik, hauek baitira pilota eskolako monitorea.

Udazkena aldera leitzarren txanda izanen da, eta lurreta bisitatzeko egokituko zaie.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAREN egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAREN egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

**ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!**

**HELBIDERATU ZURE KUOTA**

**EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA**

**egunean 0,18 zentimoren truke buzoian**

